



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko irailaren 30a

92. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskarren irakaskuntza eta erabilera arautzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako kultur ondareari buruzkoa. Tramitera ez onartua (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan premiatzen da, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko kirol eremua planifikatu eta finantza dezan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (11. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Mendillorriko IV. eta I. faseen ondoan errepidea bikoizteari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egin (13. or.).
- Galdera, Mendillorriin Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egin (14. or.).

- Galdera, Mendillorri liburutegi bat eta kultur areto bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina ([14. or.](#)).
- Galdera, Mendillorri IV ikastetxe publikoa zabaltzeari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina ([15. or.](#)).
- Galdera, Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenerari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina ([16. or.](#)).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina aldatzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz eta Espainiako Konstituzioko 87.2 artikulua babesean, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina aldatzeko Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. eta 204 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina aldatzeko Lege proposamena tramitera onartu Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.-** Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina aldatzekoa**

ZIOEN AZALPENA

I

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Giza Eskubi-deen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuen 1948ko abenduaren 10ean. Adierazpen haren 25. artikulua ezartzen du, besteak beste, gizaki orok, alargun geratuz gero, bizitza maila egokia izateko eskubidea duela.

Gizartearen lorpen handi hori Espainiako zuzenbide positiboan sartu zen Gizarte Segurantzako oinarriari buruzko abenduaren 28ko 193/1963 Legearen bitartez, eta zehaztu egin zen ondotik eman ziren testu artikuludun eta bateginean.

Lorpen hori, eskubide hori, azkenik, Gorte Nagusiek onetsi eta Espainiako herriak erreferendum bidez berretsi zuen 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioko lehen tituluko III. kapitulu-jaso eta goretsi zen.

II

Gizartearen eskariak, ordea, ez dira aldaezinak; aitzitik, aldatzen doazen beharrezanez zor zaizkie, eta gizarte-sentiberatasuna duen edozein estatuk hauteman behar ditu.

Hain zuzen ere, herritarren eskariei azkartasunez eta legegintzako tresna zaluen bidez erantzuteko gaitasunak ematen dio estatu bati benetako gizarte-estatuaren izaera.

Azken aldiotan, herri-eskari zabal bat sortu da, gizarteko sektore esanguratsuek babestu dutena eta planteatzen den intentsitate bertsuarekin aditu

eta erantzun behar zaiona. Eskatzen dena da alargun pentsioen ehunekoak gaur egungo muge-tatik goiti egitea, oinarri arautzailearen % 55era bitarte; prestazio hori jasotzen dutenen dirusarre-ra guztien azken zenbatekoa ezin izanen da lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik geratu, baldin eta pertsona hartzaileak 65 urte beteak baditu edo gizarte babes publikoaren sistemako gutxieneko osagarria jasotzeko eskubidea badu, sistema horretan urtero ezartzen diren kapital nahiz lan errenten mugekin.

Eskari hori koherentea ez ezik egokia ere bada; izan ere zehaztu eta kuantifikatu egiten du Toledoko Hitzarmeneko 12. gomendia, "dirusar-rera gutxieneko alargun pentsioak hobetzea" defendatzen baitu.

### III

Herritarren eskari zuzen horri erantzun beharra planteatzerakoan, nahitaez aztertu behar da horren bideragarritasun juridikoa eta ea bidezkoa den autonomia erkidego bateko legebiltzar batek –Foru Parlamentuak hain zuzen ere– halako ekimen bat sustatzea.

Argudio nahiko izan daiteke ekimena autonomia erkidego bakoitzaren eremura –Foru Komunitatearen eremura Nafarroaren kasuan– mugatzeko, hain zuzen ere eremu horretan gertatzen eta areagotzen direlako herritar taldeen artean errenta mailan alderik handienak. Halatan, Espainiako lurralde jakin batzuetan alargun pentsioak osatzeko formula bat ezartzeak ez du diskriminazio inso-lidarioa eragiten, Espainiako herrialdeetako errealitate sozialean gertatzen diren errenta ezberdinak berdintzeko tresna bat da-eta. Agian, komeni da legeak ematen duen aukera hori gizarte zerbitzue-tarako gordetzea, eta Gizarte Segurantzako siste-mako kutxa bakarraren printzipio sagaratuaren gaineko eztabaida ekiditea.

Proposamenak Espainia osoko pentsioei era-ginen die, eta hortaz, eztabaida Gorte Nagusiei –Kongresuari eta Senatuari– dagokie.

### IV

Kontuan hartu behar dugu, orobat, proposatu-tako neurriek berehalakoan izanen duten eragin ekonomikoa. Eta horretarako erreferenterik onena da pentsioei buruzko 2001eko apirilaren 9ko hitzarmenaren lege-garapenak izan duen eragina, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina nabaritu dena. Halatan, alargun pentsioen puntu bateko igoerak –%45etik 46ra– eta mota horretako pentsioei buruzko gainontzeko neurri osagarriek eragin oso gutxi izan dute, hain gutxi non ez duen inolako

murrizketarik eragin Toledoko Hitzarmenari esker eratu zen erreserba-funtsean –2002ko abenduaren 31n sei mila milioi euro baino gehiago pilatuko ditu–.

Alegia, Gizarte Segurantzako Araubide Oroko-rrak badu ahalmen eta kaudimen nahiko alargun pentsioak oinarri arautzailearen % 55era bitarte igo eta igoera hori bere gain hartzeko. Estatuko aurrekontu orokorrek, berriz, bere gain hartu ahal-ko dituzte, dagokien neurrian, pentsio horien osa-garriak, lege honen onuradunei lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekora bitartekoa ber-matzearren.

### V

Azken kautela gisa ikusi behar dugu ea eskari honek –gaur egun bideragarria da– etorkizunean gatazkarik ekarriko duen baldin eta ezin bazaie diru aldetik aurre egin eskuratutako edo eskura-tzeaz dauden eskubideekiko konpromisoei. Hori dela-eta, prospekzio demografiko guztiek iradoki-tzen dute alargun pentsioak ehunekotan gutxiago izanen direla prestazio multzoaren barrenean, familia- edo bizikide-unitateen taxukera berriaren eraginez eta emakumeak lan mundura samaldaka sartzearren eraginez.

### VI

Aztertu egin beharko genuke, bukatzeko, Nafarroako Parlamentuak halako ekimen bat aur-kezteko ahalmenik duenentz. Ahalmen hori Nafa-rrako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 19.1.b) artikuluan jaso-tzen da, eta Espainiako Konstituzioko 87.2 artiku-luak babesten du. Horrenbestez, hona proposa-tzen dugun

**Lehen artikulua.** Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Giza-te Segurantzari buruzko Lege Orokorraren artiku-luak aldatzea.

1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko ondo-ko artikulua eta xedapenak honela geldituko dira:

174.4 artikulua

Alargun pentsioen oinarri arautzailea % 55ekoa izanen da.

174.5 artikulua

Alargun pentsioen gutxieneko osagarriaren zenbatekoa unean-unean indarra duen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbateko bera izan-en da, baldin eta pertsona hartzaileak 65 urte beteak baditu edo gizarte babes publikoaren sis-temako gutxieneko osagarria jasotzeko eskubidea

badu, sistema horretan urtero ezartzen diren kapital nahiz lan errenten mugekin.

Pentsioaren zenbatekoa alargun pentsio gutxienekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren artekoa bada, bi zenbateko horien arteko aldea izanen da prestazio osagarria, kapital nahiz lan errenten bidez lortutako besteren dirusarrerren mugak kontuan hartu eta gero.

Hamalagarren xedapen iragankorra, bis

174.4 eta 174.5 artikuluetako xedapenak arian-arian sartuko dira indarrean 2003 eta

2004ko urtarrilaren 1etik aitzina. 2003ko urtarrilaren 1ean alargun pentsio guztiak helduko dira oinarri arautzailearen % 51ra edo urte horretan indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldataren % 94ra. 2004 urtarrilaren 1etik aitzina, ehuneko horiek oinarri arautzailearen % 55 edo lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 izanen dira, hurrenez hurren.

#### **Azken xedapena**

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.-** Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.-** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzekoa**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak arautu zituen, gizarte-beharrizanengatik eta Foru Hobetzeak hala agintzen zuelako, euskararen erabilera normala eta ofiziala gizarte-bizikidetasunaren eta irakaskuntzaren esparruetan. Arlo honetan, legegileak ez zuen egokitzat jo Nafarroako Foru Komunitatean garai hartan ematen ziren unibertsitate-ikasketa ezberdinetarako euskararen erabilera arautzea.

Geroago, apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeak Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen eta horretan ere ez zen aipamen bakarra ere egin unibertsitate berrian euskarak izanen zuen erabilerari buruz. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilua eratzeko abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legean ere ez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek, zeinak martxoaren 13ko 68/1995 Foru Dekretuaren bitartez onetsi baitziren, euskarari buruzko xedapen batzuk badauzkate, baina ezin dira

behar adinako legezko xedapentzat jo Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskarazko irakaskuntzari dagokionez. Horregatik, esan daiteke arlo honetan lege-hutsune bat dagoela, eta horrek ziurgabetasun juridikoko egoera bat sortzen duela hizkuntzaren arloan, zeinak hainbestearainoko eragina baitauka Nafarroako gizartean.

Horregatik, bada, komeni da Nafarroako Parlamentuak gai honetan sortu den egoerari konponbidea ematea, betiere Foru Komunitateko egoera soziolinguistikoari kasu eginda, arautua egon dadin euskararen irakaskuntza eta erabilera goi mailako irakaskuntzan, unibertsitate publikoari dagokionez eta, bestetik, unibertsitate-administrazio publikoari dagokionez.

Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzarako euskararen erabileraren araubide hau ezartzen da Foru Komunitateak hizkuntza-gaietan duen eskumenaren esparru zorrotzetik, unibertsitate irakaskuntzaren arloa ukitu gabe, horren araubidea Estatuari eta, kasua bada, unibertsitateei, euren autonomia dela-eta, baitagokie.

### **I. titulua: Xedapen orokorrak**

**1. artikulua.** Foru lege honen xedea da euskarazko irakaskuntzak eta euskararen erabilera arautzea Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

**2. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabilera arautuko dute foru lege honetan xedaturikoak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko atariko tituluak eta I. tituluak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko estatutuek eta horiek garatzen dituzten arauak.

**3. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko irakaskuntza arautuko dute foru lege honek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko estatutuek eta horiek garatzen dituzten arauak.

### **II. titulua: Euskararen erabilera administrazio-zerbitzuetan**

**4. artikulua.** Foru lege honetako bigarren artikuluan xedatuaren ondorioetarako, Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazioari eta berta-

ko administrazio eta zerbitzuetako langileei araudi horretan ezarritako araubidea aplikatuko zaie.

**5. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoak behar diren planak onetsiko ditu titulu honetan bildutako helburuak pixkanaka lortzeko.

### **III. titulua: Irakaskuntza**

**6. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasketa-planetan dauden edo egonen diren irakasgaiak, lurralde nazional osoan balioa izanen duten unibertsitate-titulu ofizialak lortzekoak, euskaraz irakasteko, foru lege baten bitartez baimena eman beharko da. Kasu horietan, Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak aurretiaz emanen du aldeko txostena.

**7. artikulua.** 1. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarazko irakaskuntzak ezarri ahalko ditu honako titulazio eta irakasgaietan:

- Zuzenean euskarari berari buruzkoak diren ikasketetan.
- Irakasle-ikasketetan.
- Gainerako titulazioei dagokienez, hautapen libreko irakasgaietan.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoak berezko tituluak eta parekatuak lortzera bideraturiko euskarazko irakaskuntza ere ezarri ahalko du.

3. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskararen irakaskuntza ezarriko du euskaraz jakin nahi duten Unibertsitateko ikasleei horretan laguntzeko eta hori beharrezkoa duten titulazioetan etorkizuneko lanbide-jardunerako euskaraz ikastea ahalbidetzeko.

**8. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasleen plantilla organikoan zehaztuko da zer postu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, hizkuntza horretako irakaskuntza baimenduei atxikiak egoteagatik.

**Xedapen gehigarria.** Aurreko artikuluetan jasotako arauak Nafarroako Foru Komunitateko goi-mailako hezkuntzako eta unibertsitate-hezkuntzako ikastetxe publikoei ere aplikatuko zaizkie.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako kultur ondareari buruzkoa**

### *TRAMITERA EZ ONARTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Pernando Barrena Arza jaunak Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen.

Nafarroako Gobernuak 2002ko irailaren 16ko hartutako erabaki batean, aipatu foru lege proposamena tramitatzearekin ados ez dagoela adie-

razten du, aurrekontuko kredituen gehikuntza suposatzen duelako. Erregelamenduko 145.3. artikularekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako kultur ondareari buruzko foru lege proposamena ez tramitatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan premiatzen da**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan premiatzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Industria, Lan, Merkataritza eta Turismoa Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak honela definitzen du laneko jazarpen psikologikoa edo *mobbing* deritzona: enplegatu batek bere lantokian pairatzen duen xaxatze eta jazarpen sofistikatua. Sofistikazio horren ezaugarri dira sotiltasuna –oldarkortasuna ez da agerikoa izaten– eta jarraitasuna –higadura psikologikoa apurka-apurka ematen da–, eta biktimaren lan ingurunearen isiltasuna edo konplizitatea izaten du lagun. Azken buruan, biktimak lanpostua utz dezala edo bere burua bazter dezala bilatzen du.

Lan Osasunaren Institutuak dioenez, laneko psikoterrerearen edo jazarpen psikologikoaren biktima diren pertsonak maila etiko altukoak eta prestakuntza profesional, ekimen nahiz autonomia handikoak izan ohi dira; jazartzen zaizkienak, aldiz, prestakuntza profesional gutxiko pertsonak izan ohi dira, gutxiagotasun-komplexua dutenak, maila etiko gutxikoak, oldarkorak, gezurtiak eta inprobisatzaile handiak, irain, laido eta tratu txarren katea eragiteko gauza direnak, eta lanean mailaz igotzen ahal direnei egonkortasuna galazteko helburua izaten dute.

Cisneros II txostenak dioenez, gure herrian jardunean diren hiru pertsonatik batek adierazten du tratu txar psikologikoa –ahoz nahiz moduz– pairatu duela lan-bizitzak iraun bitartean. Jardunean diren biztanleen % 16k pairatu du indarkeria psikologikoa edo *mobbinga* azken sei hilabeteotan. Arazoa berria denez, egun zabaltzen ari dena alegia, biktimen artean ezjakintasuna da nagusi oraindik ere. Nafarroan altua da salatutako kasuen indizea, eta gizarte osoa gero eta gehiago kezkatzen duen arazoaren gizarte- eta giza-dimentsioa dela-eta, lan-esparru hutsetik haratago doa egun.

Azken Cisneros txostenaren arabera, *mobbingaren* ezaugarriak ohikoenak dira presioa, arbitrarioritasuna, azpiratzea, destaina, funtsik gabeko salaketak, egindako lana gutxiestea, biktimak "leherraraztea" bilatzen duten eskakizun neurri gabek... Biktimen profila, aldiz, honakoa da: emakumezkoa (% 53,88), gaztea (% 64 ez da helitzen 30 urtera), lan-kontratu finkoduna, atzetik baitatuz aldi baterako lan-kontratudunak, eta ia-ia ez da ematen aldi baterako lan enpresetako langileen artean.

Jazarpen psikologikoa biktimen osasun psikiko nahiz fisikokoan du eragina, lanbideko etsipentasa handienak eragiten ditu, depresioak eta



gogo-aldarte eskasa eragiten ditu, laneko baja eta absentismo tasak handiagoak izaten dira, familia barreneko tentsioa, alkoholismoa eta are suizidioa ere ekartzen ditu. Badira orobat balioetsi beharreko beste faktore garrantzitsu batzuk ere, enpresen antolamenduari eragiten diotenak hain zuzen ere, hala nola, laneko bizi-tza kalitatea galtzea, produktibitate baxua eta diru galera handiak, botere-abusuan oinarritutako lan-harremanak hondatu egiten baitute, epe labur eta ertainera, enpresetako giza-kapital kualifikatuena. Portaera horri, dituen ondorioengatik, ausardiaz eta zorrotzasunez egin behar diote aurre Nafarroako administrazio publikoek eta erakundeek.

Hori dela-eta, IUN/NEBK ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du, hiru hilabeteko epean, Foru Komunitatean laneko jazarpen psikologikoa- ren aurka jarduteko plana taxu dezan, gure erki-

degoko enpresa publikoek, erakunde autonomoek eta Gobernuaren departamentuek diziplina anitzeko ekintzak elkarlanean abiaraztearren.

Plan horrek aintzat hartuko du Nafarroako Par- lamentuak 2002ko otsailaren 14an onetsi zuen erabakia. Haren bidez, Gobernuaren premiatu zuen laneko jazarpen moralak ekiditeko neurriak har- ditzen, bai eta Estatuan gai horri buruz hartzen ari- diren neurriak eta ematen ari diren aurrerapauso- ak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Foru Komunitatean indarrean diren lege-xedapen guztiak betearaz- ditzen, behar adinako zorrotzasunez eta luzamen- dutan ibili gabe zigortuak izan daitezkeen langileen aurka lanean gertatzen diren botere-abusuko nahiz agintekeriazko portaerak.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Mendillorri-ko kirol eremua planifikatu eta finantza dezan**

### *FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Mendillorriko kirol eremua planifikatu eta finan- tza dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parla- mentuko taldeek eta foru parlamentari- en zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bil- kura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Askotariko Parlamentuko Taldeko Eledun Mila- gros Rubio Salvatierrak ondoko mozioa trami- tatzeko eskatu du:

Zioen azalpena:

Mendillorri Nafarroako Gobernuaren hirigintza- ko jarduketaren baten fruitu da, eta lurraren gaineko espekulazioan nahiz etxebizitzaren prezioan eragin positiboa izan zuen. Auzoberriak, bukatu gabe badago ere, bizitzeko baldintza onargarriak eskaintzen ditu hasiera batez, Iruñerriko beste auzo eta herri batzuekin konparatuta, biztanle- dentsitateari, berdeguneei, aurreikusitako ekipa- menduei... erreparatu gero.

Baina alderdi positibo horien aldean, Mendillo- rriko planteamendu horretan nabarmena da aurreikuspen eza, eta ekipamenduen gaineko esku-hartze eskasa berebiziko eragina izaten ari da bizi kalitatean.

Hasiera batean Eguesibarren zegoen, baina Nafarroako Gobernuak Mendillorri Iruñeko Udale- an sartzearen alde egin zuen Bi erakunde horien arteko negoziazioa, udalaren eta Gobernuaren artekoa alegia, 1993an hasi zena, 1998ra bitarte luzatu zen, batez ere ekonomia arloan ados jarri ez izanaren erruz.

AKORDIOA

1998ko apirilaren 1ean, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak akordioa erdietsi zuten Mendillorri Iruñean sar zedin. Akordioak hauxe zioen:

– Nafarroako Gobernuak “Iruñeko Hiriburutza Agiria” ezarriko duen foru legea eginen du, eta urtero 1.800 milioi pezetako diru-esleipen osagarria eginez –gaurkotu ahalko direnak–, ekonomia-eta finantza-araubide berezia ezartzen du, zeinaren bidez Iruñeko Udalaren kontuak askitasunez berrerekatzen baititu, bai eta Mendillorri –Iruñean sartzean– eman beharreko zerbitzuen kostu handiagoak ere.

– Nafarroako Gobernuak oso-osorik finantzatu-ko ditu hitzarmenaren 5. eranskinean zehazten diren inbertsioak: auzoberriko sarbideak, osasun etxea, kiroldegia, udal haurtzaindegia, zaharrentzako apartamentu babestuek, Haur eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak, Lanbide Heziketako moduluak eta liburutegia eta kultur etxea.

– Hitzarmenaren jarraipena egiteko batzorde parekidea osatuko da.

#### KIROL EREMUA

Mendillorriko auzokideek garbi utzi dute –behin baino gehiagotan egin baitira inkestak eta azterlanak– igerileku estali eta estali gabeak, gimnasioa, pistak eta kirol-zelaiak dituen kirol eremua lehenbailehen eraikitzea nahi dutela, agindu zitzaizkien jarraikiz.

Mendillorri 29.612 m<sup>2</sup> ditu erreserbatuta IV. fasean kirol eremurako, Patxi Mangado arkitektoak diseinatu zuen auzoberriaren arabera. Nafarroako Gobernuak trinketea eta kiroldegia eraiki zituen 3.850 m<sup>2</sup> eraikigarri dituen 4.785 m<sup>2</sup>-ko lurzati batean, baina horrek ezin du Nafarroako Gobernuak salbuetsi anexioa gertatu zenean bere gain hartu zuen ardurari aurre egitetik.

“Kiroldegia” izeneko azpiegitura osatuko duten instalazioak izanen dira, 5. eranskineko oharretan esaten denari jarraikiz, “osagai behinenak”.

Mendillorri Iruñean sartu behar zela defenditzeko kanpainan, UPNk esaten zuen horrela ekipamendu onak izanen zituela, hala jasotzen baitzen Mendillorri Iruñean sartu zenean sinatu zen hitzarmeneko konpromisoan.

Are gehiago, sasoi hartan, Nafarroako Gobernuarekin egindako bileretan, Mendillorriko biztanleei eta bertako auzo elkarteari ziurtatu zitzaizkien, planoak begi-bistan zituztela, Mendillorri egin zuen Patxi Mangado arkitektoaren proiektuak neurri handiko kirol ekipamendua –Badalonako kiroldegiaren parekoa– aurreikusten zuela, zeren

Iruñeak ez baitu neurri olinpikoko igerilekurik, eta lehiatzen diren igerilariek Gasteiza joan behar baitute entrenatzera.

Mendillorri Iruñean sartzeko hitzarmeneko 15. idatz-zatian, 5. eranskinean zehazten diren azpiegiturak eta ekipamenduak Mendillorriko hirigunean egiteko konpromisoa hartu zuen Nafarroako Gobernuak. Hartan kiroldegia agertzen da, eta zehazten da zer ezaugarri izanen dituen eta 1998rako eraikiko dela.

1996ko abenduaren 23ko aurreko hitzarmenaren zirriborroan –Nafarroako Gobernuak 1996ko abenduaren 16ko bilkuran onetsi zuen–, berriz, ezaugarriak zehatzago jaso ziren, eta horrek erakusten du anexio-hitzarmenaren espiritua zein zen. Zirriborro hartan, ahalmena eman zitzaion Toki Administrazioako kontseilariari aipatu hitzarmena Nafarroako Gobernuaren izenean sinatzeko.

1996ko hitzarmenak badu VI. eranskin bat ere; hartan aztertu eta zehazten da Iruñean sartzeko aurrekontuetan izanen duen eragina, eta kalkulu osoa egiteko aintzat hartzen da ekipamenduen garapen osoa, ondotik zehazten denari jarraikiz. Gainontzeko ekipamenduak alde batera utzita, auzi honekin zerikusirik ez dute-eta, kiroldegiari buruz ondokoa dio:

“Kiroldegia.- Kiroldegi estali gabea (igerilekua, kirol-pista, saskibaloia, frontoia eta futbola), kiroldegi estalia (igerilekua, kirol-pista, tenisa eta frontoia), zerbitzu osagarriak (aldagelak eta abar) nahiz horiek zehazterakoan sor daitezkeen egokitzapenak.”

Horiek horrela, uste dugu ezen, jaso duen erai-kinarekin, Nafarroako Gobernuak ezin duela betetzat eman hitzarmena, Mendillorriko biztanleentzat –asko eta gazteak– jasotzeko ez baita inondik ere aski. UPNren kezka Munduko Pilota Txapelketara eta trinketea eraikitzea mugatu da, Mendillorri bizi direnentzat erabilgarritasun gutxikoa izanen dena, areago horren bitartez anexio-hitzarmena betetzat eman nahi bada eta auzoberriko aurreikusitako kirol eremuko 29.612 m<sup>2</sup>-ak ahaztu nahi badira.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin egindako bileretan, Mendillorriko biztanleei eta bertako auzo elkarteari ziurtatu zitzaizkien, planoak begi-bistan zituztela, Mendillorri egin zuen Patxi Mangado arkitektoaren proiektuak neurri handiko kirol ekipamendua –Badalonako kiroldegiaren parekoa– aurreikusten zuela, zeren

tzuen auzoko ekipamendua. Alegia, kirol eremu bat, besteak beste igerileku estalia eta estali gabeak –neurri olinpikokoak– izanen dituena.

Iruñean, 2002ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan**

### *NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari.

Nafarroako Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak tradizio historikoa jaso eta armarrria nahiz bandera definitzen ditu 7. artikuluan. Legean ezartzen denez, “Nafarroako armarrria, hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko kateez da, katemailaz osaturiko zortzi besoen elkargunean esmeralda bat dutela eta ororen gainean, berriz, Errege koroa, Nafarroako antzinako Erresumaren sinboloa. Nafarroako bandera gorria da, erdian armarrria duela.”

Lege horren osagarri, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako sinboloak arautzen dituen maia-

tzaren 28ko 7/1986 Foru Legea onetsi zuen, eta hartan zehazten da Nafarroako sinboloak zein diren eta haien erabilerak zein izan behar duen, baina ez du ezartzen inolako neurririk Foru Komunitateko ikur eta sinboloak ezagutzera emateko eta sustatzeko.

Erkidego antolatu orok eta haren ordezkari diren erakundeek sinboloak izan behar dituzte bereizgarri; sinbolo horiek erkidegoaren identitate zeinuak izanen dira; gure erkidegoaren kasuan armarrria eta bandera dira berezko identitate zeinuak.

Nafarroak 1986ko Sinboloei buruzko Foru Legea du, eta hartan ez da inolako zehapenik ezartzen Foru Komunitateko berezko sinboloak ez direnak erabiltzen diren kasuetarako. Erakundeek, berriz, ez dituzte sustatzen Nafarroako nazioaren identitatea, haren esanahia eta historia. Hori dela-eta, dei egiten dugu gure identitate zeinuak, gure ikur eta sinboloak indartzera, ezagutzera ematera eta gaur egun dagoen foru-sentimendua baino handiagoko Nafarroa egitera. Hori da gure sinboloak sustatzeko modua, eta ez, Sanz lehendakariak esanen lukeen bezala, Nafarroako udaletxeetan beste autonomia erkidego batzuetako banderak jartzea zigortu edo zehatzea.

Bada orobat 1993ko otsailaren 15eko foru dekretu bat, ekitaldi ofizialetan jo behar den Nafarroako ereserkiaren harmonizazioa onesten duena.

Hori guztia gorabehera, Foru Komunitateko identitate zeinuak bultzatu eta sustatzeko foru erakundeen kanpaina baten falta sumatzen da. Begi-bistakoa da beste erkidego politiko batzuetan gehiago ezagutu eta erabiltzen dituztela euren sinboloak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sei hilabeteko epean, Foru Komunitateko ikur eta sinboloei buruzko informazioa emateko eta haiek indartzeko, ezagutzera emateko eta erabiltzeko plan bat egin dezan, eza-gunak izan daitezen haren historia, sinbologia eta ezaugarri behinenak.

Plan hori Nafarroako hezkuntza eremura zuzenduko zaio bereziki, eta hartara, Foru Komunitateko ikastetxe guztiek izan beharko dute behar adina informazio Nafarroako identitate zeinuak sustatzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Mendillorriko IV. eta I. faseen ondoan errepidea bikoizteari buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Mendillorriko IV. eta I. faseen ondoan errepidea bikoizteari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei erantzuteko eskatu du.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta Iruñako Udalak sinatutako hitzarmenean aurreikusitako jarduketetako bat Mendillorriko IV. eta I. faseen alboko errepidearen bikoizketa da, zirkulatzeko lau errei izan daitezen, 1.722.204 euroko kostuarekin (286.550.715 pezeta).

Iruñeko Udaleko Hirigintza Batzordeak iragan ostiralean –hilak 6– egindako bilkuran, informazioa eta xehetasunak eman ziren.

Batzarre ez dator bat planteatutako konponbidearekin; izan ere, proiektuak Mendillorri IV eta I. faseen aurrealdeko berdeguneko sei metro baino gehiago –zuhaitz-ilara eta guzti– hartzea planteatzen du, eta fatxada aipatu errepideari begira duten berrehun etxebizitza zarartetatik babesteko banda apurtzea ekar dezake.

Lau errei jartzeak, gainera, zirkulazioa areagotzea eta azkarrago joatea ekarriko du, orain baino zarata gehiago eragitea hain zuzen ere, gaur egun arriskutsua eta arazotsua den oinezkoen pasabidearen auzia ez konpontzeaz gain, seguruena goitiko pasabidea behar izanen litzatekeelako.

Ez dugu ulertzen proiektu honek zergatik ez duen aztertu Ripagainako lurak (ezkerraldea) hartzea, oraindik garatu gabe baitago, eta nahia-go izan den etxebizitza horietan bizi den hainbeste biztanleren ongizatea zapuztu.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Ba al du Nafarroako Gobernuak azterlanik jakiteko zenbat trafiko eta zenbat zarata eragin duen aipatu bikoizketak? Hala baldin bada, errespetatuko al ditu legeak ezarritako mugak eta, horrenbestez, inguru horretako berrehun etxebizitza baino gehiago zarartetatik babesteko banda?

2. Ba al da aipatu errepideak jasaten duen eta ustez jasanen duen trafikoari buruzko azterlan zehatzik, bikoizketa justifikatzen duenik alegia?

3. Zergatik ez da erabaki errepidea ezkerralderantz bikoiztea –garatu gabeko lurak izaki–, bizi-lagunek ahalik eta zaratarik gutxien pairatzeko eta sei metroko berdegunea –zuhaitz-ilara eta guzti– hartu behar ez izateko?

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Galdera, Mendillorri liburutegi bat eta kultur areto bat eraikitzeari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Mendillorri liburutegi bat eta kultur areto bat eraikitzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei erantzuteko eskatu du.

Mendillorri Iruñean sartzeko Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak 1998ko apirilaren 1ean sinatutako hitzarmenaren bidez, Gobernuak zenbait ekipamendu eraiki eta finantzatzeko konpromisoa hartu zuen. Horien artean liburutegi bat eta kultur etxea zeuden.

Liburutegi eta kultur etxearen proiektua orain dela urtebete egin zen, bai eta ordaindu ere. Hala ere, Nafarroako Gobernuak ez da oraindik hasi kultur ekipamendu hori eraikitzen.

Horiek horrela, hauexekin jakin nahi dugu:

1. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak aipatu ekipamendua eraikitzea? Hala baldin bada, noizko aurreikusi du eraikitzen hasi eta bukatzea?

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Galdera, Mendillorri Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Mendillorri Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei erantzuteko eskatu du.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzea Nafarroako Gobernuak bete gabe duen lana da. Mendillorri bizi diren ikasleak auzotik beste ikastetxe batzuetara irten beharrean daude. Ikusita Lehen Hezkuntzako ikasleak lehen zikloa bukatzeaz zirela eta Mendillorri artean ez zeukala agindutako Bigarren Hezkuntzako instituturik, bertako IGE orain dela bost urte baino gehiago hasi zen Nafarroako Gobernuaren aurrean kudeaketak egiten.

2001 urtean zehar, Nafarroako Parlamentuan gai horri buruzko zenbait erabaki onetsi zen. 2001 maiatzaren 22an onetsitakoan, Nafarroako Gobernuak premiatu zen "2002ko ekitaldiko aurrekontu orokorretan kontusail bat sor zezan Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxea eraikitze proiektua egiteko, 2003/2004 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa hastearren".

Egun berean Parlamentuak beste erabaki bat ere onetsi zuen. Haren bidez, besteak beste, "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2001 urtea bukatu baino lehen egin dezan bigarren hezkuntzako premiei buruzko programa orokorra –eta, ondorioz, Mendillorriin egin beharrekoen programa ere– eta gurasoen ordezkariari euren iritzia eska diezaien, haiek aztertuko baitute haren edukia eta betetzen ote den. Premiei buruzko programa orokorrak ondokoak bilduko ditu, besteak beste:

a) Mendillorriko bigarren hezkuntza osoari –DBH, batxilergoa eta lanbide heziketa– buruzko premien programazio orokorra, Mendillorriin hezkuntza eskaintza osoa izan dadin.

b) 2003/2004 ikasturtean hasiko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Mendillorriin, etorkizuneko premiei aurre egiteko onetsitako jarduketaren programa batek dakarren bermearekin.

c) Egin beharrekoen programan batxilergoak jarriko direla jasoko da, bai eta egoki irizitako zikloak ere, ikasle kopuruak hala egitea eskatzen badu.

d) Programa bakar batean bilduko dira premia eta egin beharreko guztiak, eta arian-arian eginen

dira, baina luzatu gabe eta zalantzak aldiro sortu gabe.

e) Gurasoen elkarteei auzoko hezkuntzari buruzko proiektu, azterlan eta abarren berri emanen zaie une oro, gurasoen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko."

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Parlamentuaren aipatu erabakiak bete al dira edo betetzeko prozesua abiarazi al da? Hala baldin bada, zer jarduketa burutu da orain arte?

2. Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxea eraikitzeako proiektua egin al da? Eta bigarren hezkuntzako premiei buruzko programa orokorra eta, ondorioz, Mendillorriin egin beharrekoen programa egin al da? Hala baldin bada, horien kopia jaso nahi dut.

3. Zein lurzatitan aurreikusi da eraikitzea Bigarren Hezkuntzako aipatu ikastetxea? Zenbat ikaslerentzat diseinatu da? Zer hizkuntza eredutarako?

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## Galdera, Mendillorri IV ikastetxe publikoa zabaltzeari buruzkoa

### FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Mendillorri IV ikastetxe publikoa zabaltzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN TESTUA

Askotarikoak Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei erantzuteko eskatu du.

Urte batzuetatik hona agerikoa denez, Mendillorriin haur eta gazte anitz bizi da. Halere, Nafarroako Gobernuaren administrazioa behin eta berriz gelditu da gaindituta, eskola-ekipamendu nahiko ez aurreikusteagatik edo garaiz ez aurreikusteagatik. Halatan, oraingo ikasturtean, berrigertatu da Haur Eskolako ikasleek ordaindu behar izana Nafarroako Gobernuaren arduragabekeria, bukatu gabe baitaude Mendillorri IV ikastetxea handitzeko obrak. Hasiera batean, gaur, ikasturtea hasten den egunean, bukatuta behar zuten gutxienez ere euskara, ingelesa, musika eta liburutegiko berezitasunetarako lau gelak, eta urrirako, aldiz, beste sei gela.

Nafarroako Gobernuaren jarduna gidatzen duen utzikeriak udal taldean ere igartzen da; izan ere, Mendillorriko eskola-erkidegoak aurten berriz ere bizi duen egoerari buruzko galdera egin zuen Batzarrek Udaleko hiritar aferen batzordean, eta udal taldeak erantzun zion arazoa ez zela udala-

rena, eta ez zekitela obrak noiz bukatuko diren eta gela horiek noiz egonen diren erabiltzeko prest.

Mendillorri beharrezkoak diren gutxieneko ekipamenduei buruzko aurreikuspen eta jarduketa ezak han bizi diren auzoen bizi kalitateari eragiten dio, eta bereziki eragiten die seme-alabak, zenbait gela ez izateaz gain, obretan den eskola batera eraman behar dituzten gurasoei, horrek dakartzan segurtasun eta osasungaitzasun arazoak barne. Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak bukatuko direla Mendillorri IV Eskola Publikoa handitzeko obrak?

2. Gerta al daiteke eskola-ikasleentzako arrisku egoerarik obren ondorioz?

3. Agerikoa da ikasturtearen hasieran obrak bukatu gabe daudela. Zeri zor zaio aurreikuspen eza?

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Galdera, Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruzkoa**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernu bisitan joan zen 2000. urtean Aribera, eta han, Erroibarreko, Aezkoa ibarreko eta Artzibarko ordezkariekin nahiz Auritz, Orotz-Betelu, Orreaga eta Luzaidekoekin egin zen bileran, bertako ordezkariak Nafarroako Gobernuari egiten dizkioten eskariak entzun zituen Gobernuko lehendakariak.

Geroago, gure talde parlamentarioak, eskari haiek bere eginda, erabaki proposamen bat aurkeztu zion Nafarroako Parlamentuari, Nafarroako Gobernu premiatzen zuena Pirinioko ekialdeko

ibarren garapen sozioekonomikorako plan bat presta dezan. Hartan, besteak beste, ondoko neurriak jasotzen ziren:

– Berrantolaketa administratibo eta ez politikoren prozesuan aurrera egitea, toki-eremutik kudeaketa eta arretaren kalitatea hobetzeko.

– Orreagan erromesentzako ostatu bat egitea, eskualde horretako nekazaritza-etxeen ostatu eskaintza osatzeko.

– Aurizko osasun etxean eskaintzen den pediatria-zerbitzua hobetzea.

– Garraldako hiltzgia eskualde-hiltzgi gisa irekiko da, eta hobetu eta handitu egitea, behi eta ardi-azienda hiltzeko, eta bertakoa den Auritz arrazako behorrak nahiz Pirinioetako behi-arraza bultzatzeko laguntzak ematea.

– Aurizberriko industrialdea handitzeko aukera aztertzea, eskaintza hobetzeko eta askotariko enpresentzat industrialde horretan instalatzea erakargarria izan dadin.

.- Teknologia berriei buruzko berriazko plan bat egitea. Horrekin bat, Nafarroako Gobernuaren zentro teknologikoen deszentralizazioa egitea. Plan hori aplikatuko zaie bai toki administrazio publikoei bai plan berriaren bidez onurak lortu ahalko dituzten enpresei.

– Eskualdeko ondare historiko-artistiko joria (Orbaitzetan dagoen armen errege fabrika, garaiak, Donejakue Bidea, Artziko erromanikoa, monumentu megalitikoak eta abar) zaharberritu eta indartzeko azterlan bat egitea.



– Garraldako ikastetxean eskaintzen diren aukerako irakasgaiak ugaritzea, eta giza baliabideak nahiz baliabide materialak gehitzea, eskualde txirotuetan diskriminazio positiboa egitearen beharra kontuan izanik.


– Luzaidetik pasatzen den Iruña-Frantzia errepidean (C-135), jaiegunetan kamioiak iragateari emanen zaion tratamendua N-121 A eta N-121 B errepideei aplikatuko zaien berbera izatea.

Arestian azaldutako guztia kontuan izanik, neurri horietako bakoitza –aipatu ibarretako udalek eginiko eskariak dira– une honetan zehatz-mehatz zertan den jakin nahi dugu.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

|   |   |
|---|---|
| <b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b><br><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b><br>Urte bat ..... 39,07 euro<br>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 »<br>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 » | <b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b><br><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b><br><b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b><br>Arrieta 12, 3<br>31002 IRUÑA |
|---|---|